



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
03/11/2017

## **Las Juntas Generales aprueban que comparezca en Juntas un "representante" del TVCP para detallar el informe de fiscalización de las cuentas de Bizkaia de 2015**

La comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado hoy, por unanimidad, pedir al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (TVCP) la presencia de un "representante" de este órgano fiscalizador para que detalle en Juntas, el Informe de Fiscalización de la Cuenta General del Territorio Histórico de Bizkaia correspondiente al ejercicio 2015.

La iniciativa ha partido del grupo juntero de EH Bildu que ha pedido la presencia de "un representante" del TVCP puesto que da por hecho que no podrá acudir su actual presidente, José Luis Bilbao, ya que durante buena parte de ese año estuvo al frente de la propia Diputación foral de Bizkaia.

La apoderada Arantza Urkaregi ha justificado dicha petición porque en el actual reglamento de la Cámara, no se incluye la posibilidad de que el órgano fiscalizador acuda a la Cámara vizcaína a explicar dichos informes fiscalizadores antes de que las Cuentas se voten en sesión plenaria. Dichas explicaciones son "necesarias" antes de adoptar acuerdo alguno sobre la Cuenta General.

Los grupos junteros han considerado "pertinente" la presencia de un responsable del TVCP, para conocer "de primera mano" la opinión y las explicaciones del Tribunal, en lo que algunos apoderados han calificado como "un ejercicio de transparencia".

### **SITUACIÓN DE INFORMÁTICA DE EUSKADI**

Por otro lado, la comisión ha abordado después la comparecencia del diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, que a petición de EH Bildu ha acudido a la Cámara vizcaína por la situación de la empresa Informática de Euskadi. La coalición abertzale le ha preguntado si la Diputación conoce la venta del "90%" de las acciones que tiene Kutxabank en la citada empresa radicada en Zamudio y si "hará algo" para evitar la "deslocalización" de una compañía que tributa en Bizkaia y que mantiene 325 puestos de trabajo.

Iruarrizaga ha señalado que la Diputación "no es concedora de las razones" que pueden mover al banco vasco a desprenderse de esas acciones, hecho que, en cualquier caso, no se ha materializado todavía. El diputado ha aclarado que la institución foral no tiene participación en el Consejo de Kutxabank y que, por lo tanto, "no tiene capacidad para conocer" las razones de dicha supuesta intención de venta de acciones.

La Diputación cuenta únicamente con un representante en el patronato de esta entidad bancaria, de los 13 vigentes. La legislación "prohíbe" a los miembros del patronato a participar en los consejos de dichas entidades financieras y obliga a estos a guardar "confidencialidad" sobre las



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

decisiones que se toman, por ello, la Diputación “poco o nada puede hacer porque no está en nuestra mano poder influir en las decisiones del Consejo de Kutxabank”.

En cuanto a la posible deslocalización de la empresa informática, Iruarrizaga ha dicho que “puede que se de o no, aunque no me gustaría que Bizkaia perdiese puestos de trabajo o un contribuyente”. En cualquier caso, Iruarrizaga ha advertido que, de producirse esta situación, la empresa seguiría pagando las retenciones de sus trabajadores en Bizkaia.

EH Bildu ha recordado que el comité de empresa, en una comparecencia en la comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía de las Juntas Generales, ya advirtió que la venta de acciones por parte de Kutxabank podría tener “consecuencias en el empleo, en las condiciones laborales y en el pago de impuestos” en Bizkaia por la posibilidad de que la sede fiscal se trasladase a Madrid. Tanto este grupo como Podemos Bizkaia han pedido al diputado que se interese por el caso en el seno de Kutxabank ya que la Diputación “tiene mucha relación” con los órganos de decisión. Han reclamado que se muestren “vigilantes” por si hubiera un proceso de deslocalización.

Por su parte, el grupo Popular Vizcaíno ha señalado que la decisión de Kutxabank de desinvertir tanto en esta empresa como en otras, se mueve en el terreno “de los planes de negocio y las estrategias empresariales” de la entidad, que como cualquier otro banco, “entre sus objetivos se encuentra el de lograr beneficios”. Aún así, cree que es una “buena noticia” que Kutxabank “se haya comprometido a mantener la carga de trabajo” de Informática de Euskadi, empresa que está participada, además de por Kutxabank, por la consultora Accenture.

Por su parte, el grupo juntero Socialistas Vascos ha sostenido que la supuesta decisión de Kutxabank tiene su origen en un proceso de “bancarización de las cajas”. Y en esto, “fuimos muy críticos” pero teniendo en cuenta que “nos lo exigía la normativa europea y estatal”, ha apuntado su apoderado Ekain Rico.

Desde las filas del grupo Nacionalistas Vascos se han puesto del lado de la Diputación que “no tiene capacidad de decisión” en Kutxabank. “Son las empresas las que deciden quedarse o no en Bizkaia, aunque la Diputación intente mejorar sus condiciones laborales”, ha dicho su juntera Ainara Aretxabaleta.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
2017/11/03

## **Batzar Nagusiek KPEE-TVCPko "ordezkari" bat etortea onartu dabe, 2015eko Bizkaiko Kontuen fiskalizazio txostena azaldu daian**

Batzar Nagusietako Ekonomia eta Ogasuneko batzordeak aho batez onetsi dau gaur, erakunde fiskalizatzaile horretako "ordezkari" baten presentzia eskatzea Kontu Publikoen Euskal Epaitegiari (KPEE-TVCP), 2015. ekitaldiari jagokon Bizkaiko Lurralde Historikoko Kontu Orokorraren Fiskalizazio Txostena azaldu daian.

Ekimena EH Bildu taldetik sortu da, KPEE-TVCPko "ordezkari" baten presentzia eskatu dauelako, bertako presidentea, José Luis Bilbao jauna, etortea ezinezkoa izango dala aurreikusita, urte horretako parte batean bera zalako Bizkaiko Foru Aldundiko burua.

Arantza Urkaregi batzordekideak eskari hori justifikatu dau, Batzarretako egungo arautegian ez dalako jasoten erakunde fiskalizatzailea Bizkaiko Batzarretara etortea txosten fiskalizatzaile horreek azaltzera, Kontuak osoko saioan bozkatu aurretik. Azalpen horreek "beharrezkoak" dira Kontu Orokorraren gaineko edozein akordio hartu aurretik.

Batzarretako taldeek "bidezkoa" ikusi dabe KPEE-TVCPko ordezkari baten presentzia, Epaitegiaren eretxia eta azalpenak "zuzenean" ezagutzeko. Batzordekide batzuek esan dabenez, "gardentasun ariketea" izango litzateke.

### **INFORMÁTICA DE EUSKADI ENPRESAREN EGOEREA**

Beste alde batetik, batzordeak José María Iruarizaga Ogasun eta Finantzetako diputatuaren agerraldia jasoko dau. EH Bilduk eskatuta Bizkaiko Batzarretara etorri da, Informática de Euskadi enpresaren egoeraren barri emoteko. Koalitzino abertzaleak, Zamudion dagon enpresa horretan Kutxabankek eukazan akzinoen "%90" saldu egin dirala ete dakien, eta zergak Bizkaian ordaintzen dituan eta 325 lanpostu daukazan konpainia "lekuz aldatzea" saihesteko "zeozer egingo ete dauen" galdetu deutso.

Iruarizagak adierazo dauenez, Aldundiak "ez daki zeintzuk diran" euskal banketxea akzino horreek saltzera eroan dituan errazoiak baina, dana dala, hori ez dala oraindino gauzatu esan dau. Diputatuak argitu dauenez, Foru Aldundiak ez dauka partaidetzarik Kutxabankeko Kontsejuan eta, ondorioz, "ez dauka gaitasunik" akzinoak saltzeko dagon ustezko asmo horren errazoiak zeintzuk diran jakiteko.

Aldundiak ordezkari bakarra dauka banketxe horretako patronatuan, dagozan 13etatik. Legediak "debekau egiten deutse" patronatuko kideei finantza erakunde horreetako kontseiluetan parte hartzea, eta kontsejuan hartzen diran erabagien inguruko "konfidentzialtasuna" gordetzera be behartzen ditu bertako kideak. Hori dala eta, Aldundiak "oso gitxi edo ezer ezin dau egin, ez dagolako gure eskuetan Kutxabankeko Kontsejuko erabagietan eraginik izatea".



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

Informatika arloko enpresa lekuz aldatzeari jagokonez, Iruarriazagak esan dauenez “beharbada gertatuko da, edo beharbada ez, baina ez neuke gure Bizkaiak lanpostuak edo zergadun bat galtzerik”. Dana dala, Iruarriazagak adierazo dauenez, hori gertatu ezker be, enpresak Bizkaian jarraituko leuke bere beharginen atxikipenak ordaintzen.

EH Bilduk gogorarazo dauenez, enpresa batzordeak, Eskaeretakako eta Herritarrakazko Hartu-Emonetakoko Batzordean izandako agerraldi batean, iragarri eban Kutxabanken akzinoen salmentak “eraginak izan eikeala enpleguan, laneko baldintzetan eta zergen ordaintetan” Bizkaian, egoitza fiskala Madrilerara aldatzeko aukerea egoalako. Talde horrek eta Podemos Bizkaiak, kasu horren gaineko informazioa Kutxabanketik jasoteko eskatu deusie diputatuari, Aldundiak “hartu-emon handiak ditualako” erabagiak hartzen dituen organuakaz. “Adi egoteko” eskatu dabe, ea leku aldaketa prozesuren bat gertatzen dan.

Bizkaiko Talde Popularrak, bere aldetik, Kutxabankek enpresa horretan eta beste batzuetan daukazan inbertsinoak saltzeko hartzen dituan erabagiak erakundearen “negozio planen eta enpresa estrategien” arloan mobiduten dirala esan dau, beste banketxe guztiakaz gertatzen dan moduan, “euren helburuen artean irabaziak lortzea dagolako”. Halanda be, bere eretxiz “albiste ona” da Kutxabankek Informática de Euskadi enpresaren “laneko kargeari eusteko konpromisoa erakutsi izana”. Enpresa horretan, Kutxabankek gain, Accenture kontsultoretza-etxeak be badauka partaidetzea.

Euskal Sozialistak taldeak, bere aldetik, Kutxabanken ustezko erabagiaren jatorria “kutxak banketxe bilakatzeko” prozesuan dagola esan dau. Eta gai horretan “oso kritikoak izan ginen”, baina “Europako eta Estaduko arautegiak eskatzen euskula” ahaztu barik, adierazo dau Ekain Rico batzordekideak.

Euzko Abertzaleak taldeko lerroetatik Aldundiaren alde agertu dira, “ez daukala Kutxabanken erabagiak hartzeko ahalmenik” esanez. “Enpresak dira Bizkaian geratzea edo ez geratzea erabagiten dabenak, Aldundiak laneko baldintzak hobetzeko ahaleginak egiten dituan arren”, Ainara Aretxabaleta batzordekideak esan dauenez.